

Lehenik eta behin, zuek, zuen familiak eta lagunek ondo jarraitzea espero eta nahiko genuke.

Jarraian, gauzatu nahi ditugun neurriak zerrendatuko ditugu, betiere erakunde eskudunak ezarritako araudiak horretarako aukera ematen badigu.

IREKIERA DATA

Kluba ekainaren 8an berriro irekitzea erabaki du, garbiketa eta desinfekzio baldintza onenetan egingo dela bermatuz.

INSTALAZIOEN ORDUTEGIA

- Kontxa: 08:00etatik 21: 00etara
- Aiete (Bera-Bera): 09:00etatik 15: 00etara

Klubeko espazioak erabiltzeko ezarritako arauak betez, nahitaezkoa izango da aldeztatik erreserba egitea. Horretarako, web aplikazio bat eta telefono bidezko arreta jarriko dira bazkideen eskura. Horrela, osasun-ministerioak fase bakoitzean finkatutako edukiera bermatuko dugu, itxarote-pilaketak saihestuz eta erabiltzaileen arteko gutxieneko distantzia errespetatuz. Ireki aurreko astean e-mail bat bidaliko dizuegu atal honi buruzko informazio guztiarekin.

Hala ere, hondartzara Klubetik sartu eta takilak erabili ahal izateko, ez da beharrezkoa izango aldeztatik erreserba egitea. Baina takiletara sartu aurretik, Klubeko langileek adieraziko dute noiz pasa daitekeen, baimendutako edukiera errespetatuz, pasiloetan pilaketak eta gurutzaketak saihesteko.

ESPAZIO ETA ZERBITZU ERABILGARRIAK

KONTXA

- Gimnasio nagusia (0 solairua).
- Erabilera anitzeko aretoa (-1 solairua): bizikleta eta ergometroa banaka egiteko.
- Pisu libreko gela (-1 solairua).
- Aldageletako zerbitzua. Oraingoan, dutxa-zerbitzurik gabe.
- Txarteldegia-zerbitzua.
- Eskuoihalak alokatzea.
- Masaje-zerbitzua.
- Taberna.

AIETE (BERA-BERA)

- Gimnasio nagusia.
- Eskuoihalak alokatzea.
- Teniseko pistak jendearentzako ordutegian.
- Padel pistak jendearentzako ordutegian.

Azkenik, berriz ere esan behar dizuegu lanean jarraitzen dugula higienarik eta segurtasunik handiena bermatu ahal izateko aplikatuko ditugun neurri guztiak diseinatzen eta planifikatzen. Zain gaude bazkide bakoitzak eta langile bakoitzak bete beharko dituen osasun-segurtasuneko eta higieneko betekizunen berri eman diezaguten. Funtzionatzeko modu berri horri eta garatzen ari garen erabilera-arauei buruzko informazio zehatza eta argitua dugunean, bazkide guztiei helaraziko diegu, posta elektronikoko, web, facebook eta abarren bidez, guztiok ahalik eta hobekien eta lehenbailehen egokitu ahal izateko.

Besarkada birtual bat guztientzat
Donostia, 2020ko maiatzaren 21a
Zuzendaritza Batzordea